

Bill Mitchell: tasatze agentziak eta plan berria

1. Tasatze agentziak

Tasatze agentziek izua barreiatu dute arlo finantzarioan. Jende gehienak beldurtu dira eta gobernuak noraezean dabilta.

Baina guztiok ez dira beldurtu. Izan ere, Diru Teoria Modernoan aritzen direnak argi, garbi eta ozen¹ salatu dute agentzia horien lana, aspalditik gainera².

Ekonomialari eta politikari gehiegik AEBetako eta Greziako egoera parekatu nahi dute. Baina bien egoerak ez dira berdinak, erabat ezberdinak baizik.

Behin eta berriz sistema monetarioaren funtzionamendua, eta bereziki interes-tasak nola jartzen diren ez ulertzeak dakar horrelako akatsa.

AEBetan eta Grezian gertatzen ari direnak konpara ezinak dira sistema monetarioak oso desberdinak direlako³.

Europar Batasuneko estatu ezberdinen gobernuak:

- a) Beren subiranotasun monetarioa laga zuten eta izatez atzerritar monetan batean (euroan) gastatzen dute.
- b) Ez daukate inolako ahalmenik beren moneta jaulkitzeko; hortaz, zergetan eta/edo maileguz hartzean oinarritzen dira beren gastu netoa finantzatzeko.
- c) Haiek kontrolatzen ez duten banku zentral batek jartzen ditu interes-tasak.

Horrelako sisteman, interes-tasaren egitura –epe laburreko politikaren tasatik (Europar Banku Zentralak, EBZ-k, jarria) epe luzeko interes-taseta- konbinapen batek determinatzen du: alegia, epe laburreko EBZren jardunbidearen erabakiak alde batetik, eta epe luzeko inflazioari eta ordaintze ezaren arriskuari buruzko inbertsio pribatuen merkatu itxaropenak bestetik.

EBZ-k epe luzeko interes tasak kontrolatu ahalko lituzke baldin eta hola erabakiko balu – interes tasak finkatuz eta tasa horietan edozein zor erosteko intentzioa deklaraturaz-. Baina estatu kideek ezin dituzte beren buruak behartu hori egiteko. Herrialde kideek beren kontrolari amore eman zioten euro gunean sartzerakoan.

AEBek, Japoniak, Australiak eta beste estatu subirano gehienek:

- 1) Badaukate beren moneta jaulkitzeko monopolioa eta beti monetan horretan gastatu dezakete ondasun era zerbitzu errealak saltzeko dauden heinean.

¹ Ikus <http://neweconomicperspectives.blogspot.com/2011/08/more-bad-beer-from-s-david-beers.html#more> eta <http://bilbo.economicoutlook.net/blog/?p=15542>.

² Ikus <http://bilbo.economicoutlook.net/blog/?p=6857>. Halaber, ikus <http://bilbo.economicoutlook.net/blog/?p=7838>.

³ Ikus <http://bilbo.economicoutlook.net/blog/?p=15580>.

- 2) Ez dute behar maileguz hartzerik zergapetze gaineko gastu netoa finantzatzeko. Orokorki, gobernu subirano batek ez ditu errentak inoiz murrizten, zeren monetaren monopolio jaulkitzailea baita.
- 3) Banku zentrala kontrolatzeko boterea du, baita haren interes-tasa ezartzea ere, edo haren aktibo erosketaren erabakiak kudeatzeko. Azken finean, gobernuak agintzen du eta ahalmena dauka banku zentrala erabiltzeko gobernuak nahi duena egitearren.

Sistema monetario horretan gobernua da beti agintzen duena. Banku zentralak interes-tasak jartzen ditu epe laburrean eta egiturak segitzen dio inflazio-arriskuaren itzaroteei, ez ordaintze ezaren arriskuari.

Bono pribatuen merkatuek badakite AEBetako gobernuak ezin duela huts egin arazo finantzarioengatik. Izan ere, inbertsiogileek kasu gutxi egiten diete agentzia horien txostenei⁴.

Bi sistema horien arteko desberdintasuna ulertuz, argi uler daiteke zer dela eta 1990ko eta 2000ko hamarkadetan Japonian egondako bono tasatzearen mailakatze baxuek ezin zuten eragin tasetan edo beste edozein arlotan.

Hori dela eta, Bill Mitchel-ek tasatze agentzia horiek legez kanpo uztea gomendatu zuen⁵.

Izan ere, Mitchell-en arabera:

- i) AEBetako gobernuak indarrean jarri behar du legislazioa tasatze agentzia horiek legez kanpo uzteko.
- ii) Haien defizitak areagotu behar dituzte eta **Lan Bermea**⁶ martxan jarri.
- iii) Langabezia murriztearekin etorriko den kreditu politikoa gozatu behar dute.

Kontua defizita publikoak ez murriztean datza. Hauxe da neoliberalismo berriak nonahi hedatu duenaren aurka. Eurolandian kalifikatze agentziak direla eta, EBko estatu kideak noraezean dabilta. Baina kalifikatze horren atzean austeritatea eta murrizketak daude. Neoliberalismo horren kontra, lana sortzea de erremediorik handiena eta horretarako mundu mailan hurrengo hamarkadan aurrekontu defizitak beharrezkoak izango dira⁷. Horretarako, Diru Teoria Modernoak irakasten duenez, gobernuaren diru jaulkitzea behar da, ez kanpotik kredituak bereganatzea.

2. Zergatik ez plan hau?

Bill Mitchell-ek ondoko plana proposatu berri du⁸:

- (i) Finantza merkatuak diziplinatzea⁹.

⁴ Ikus <http://bilbo.economicoutlook.net/blog/?p=15542>.

⁵ Ikus <http://bilbo.economicoutlook.net/blog/?p=6857>.

⁶ Ikus http://e1.newcastle.edu.au/coffee/job_guarantee/JobGuarantee.cfm eta <http://www.cfeps.org/pubs/wp-pdf/WP39-MitchellWray.pdf>.

⁷ Ikus <http://bilbo.economicoutlook.net/blog/?p=17533>.

⁸ Ikus <http://bilbo.economicoutlook.net/blog/?p=15564#more-15564>.

- (ii) Etxegintza krisia kalterik gabeko bilakatzea – ordaintze ezaren arriskuan daudenei errenta eta berriz erostea eskaintzak eginez¹⁰.
- (iii) Zor publiko gehiago ez jaulkitzea eta Altxor Publikoa Banku Zentralarekin bat egitea – izatez, errealitatean den moduan¹¹.
- (iv) Lanpostu bermea¹² martxan jartzea eta segurtatzea ezen lan egin nahi duen baina lan topatu ezin duen edozeinek (sozialki onargarri den) gutxienezko soldata bat daukala sektore publikoan, komunitate garapena eta ingurugiro sostengarritasuna aurreratuz.
- (v) Azpiegitura publikoaren garapenerako esku zabaleko fondoak hornitzea, zeintzuek etorkizuneko oparotasuna babestuko duten - ospitaleak, eskolak,...
- (vi) Energia berriztagarriari ikerketan inbertitzea.
- (vii) Sistema federaletan¹³ estatu desberdinei, demografiaren arabera, diru-laguntzak hornitzea beraiei permititzea beren kaleko argiak pizteko eta beren eskolak funtzionatzen mantentzeko.
- (viii) Hezkuntza publikoan Diru Teoria Modernoa ulertzearen aldeko kanpainetan inbertitzea.
- (ix) Itxarotea gastu pribatuaren susperraldirako – pizgarri neurri horietatik etorriko diren errenta handitzeak, zor pribatuen mailak kontrolpean jartzen dituen heinean.

⁹ Ikus [Operational design arising from modern monetary theory](http://bilbo.economicoutlook.net/blog/?p=5098) (<http://bilbo.economicoutlook.net/blog/?p=5098>) eta [Asset bubbles and the conduct of banks](http://bilbo.economicoutlook.net/blog/?p=5240) (<http://bilbo.economicoutlook.net/blog/?p=5240>).

¹⁰ Zehaztasunetarako, ikus 2. oharra.

¹¹ Europar Batasunean (EB) arazoa dago, Altxor Publikoa ez baita existitzen. Horra hor, bada, EBrako lehen eginkizuna.

¹² Ikus http://e1.newcastle.edu.au/coffee/job_guarantee/JobGuarantee.cfm.

¹³ EB-ko estatu ezberdinei *per capita*-ko diru laguntza luzatzea.